

itsasondo2.0

herriko aldizkaria 51. zk (ekaina 2022)

Ika, ika, ika KORRIKA!



Elkarrizketa:
Belen Mendizabal

Zinegotzi
aldaketa

Tertulia
literarioak

aurkibidea

03-04	Udaleko berriak
05	Eskola
06	Guraso Elkarte
07	Arbel-aitz
08-09	Gaztelekua
10-11	Gaia
12-15	Udal antolaketa
16-17	Tertulia literarioak
18-22	Elkarrizketa: Belen Mendizabal
23	Motzean
24	Itsasklik
25	Ongizatea
26-29	Hemeroteka
30	Liburutegi txokoa
31	Euskararen atala
32	Oharrak / Agenda

Duina: Loreak udan ihintza bezala.

Sarrerako bertsoak

Berriro ere osatu zaigun “Itsasondo aldizkariak” Korrikarekin bat egin eta lerrotuz ibilaldiak, gatzetxoekin parte hartzeak, euskararen mintzaldiak eta kaleko neurketarekin literatur tertuliak.

Berrogeitahiru urte luzetan Idazkaritza lanetan Belenek badu zer kontatua erretiroko planetan ordezkorearen sarrera ere jar daiteke arlo honetan iragana ta geroarekin lotura eginez bertan.

Bihotz birgaitze ikastaroko Kronika luze zabala, Itsasklik gida, ta naturari eskainitako atala, liburuaren txokoa noski gaueroko eginala eta mokadu goxo batekin amets goxoen itzala.



agurra

Udaberrri giro epelarekin batera irit-si zaigu Itsasondo 2.0 aldizkariaren 51. zenbaki hau ere. Eguraldia gero eta hobea den honetan, eta maskara derrigor erabiltzea espazio gehienetan kendu izanarekin batera, gure kaleetan nabari da koronabirus aurreko garaia, eta, Aste Santuko oporren ondoren, udako oporren usaina. Mendira, hondartzara, inguruko lekuetara, leku exotikoetara... Pentsatu al duzu nora bidaiatuko duzun aurten? Guk oraindik jakin ez dakigun arren, ziur gaude aukera izango dugula Itsasondoz eta inguruez gozatzeko.

Opor kontuak eta udako planak alde batera utzita, hel diezaiozun esku artean dugun aldizkariaren errepassoari. Izan ere, ez pentsa 2022. urteko bigarren zenbaki honetan ez dugunik izan herrian kontaktetik: elkarrizketa, agenda eta Itsasondoko berriz beteta dator zenbaki hau. Irakurtzeko prest? Has gaitezen!

Hori gutxi ez, eta urte luzez udaleko idazkari izandako Belen Mendizabal elkarrizketatzeko aukera izan dugu; abenduan hartu zuen erretiroa, eta izan du zer esana eta zer kontatua. Bestalde, Itsasklik Itsasondoko aplikazioa erabiltzeko gida ere orri hauen artean argitaratu da. Ohiko beste atalak ere beti bezala aurkituko ditugu hemeroteka, udaleko azken berriak, agenda, errezeta, liburu txokoa...

Aurrekoa 50. zenbakia izan zen, eta ea beste 50 ere egiten ditugun. Gozatu irakurketaz, eta pozik bizi, Itsasondo!

Udaleko berriak

2022ko apirilaren 28an egindako udalbatzan, 2022. urteko behin betiko aurrekontuak onartu ziren. Itsasondoko 2022ko aurrekontua 1.425.000€koa izango da.

Sarrereri dagokienez, espero da udalaren diru-sarrera nagusiak 2022ko foru-funtsa (542.537 €) eta EREIN dirulaguntzetara egindako eskaria izatea.

Gastu eta inbertsio nagusiei dagokienez, Itsasondoko baserrietan egingo den ur-hornidura sare berriaren bigarren fasea (350.000 €) eta kale nagusiko lokalaren erosketa (60.000 €). 2022ko aurrekontuaren kontura (60.000 €) eta beste hainbeste 2023ko aurrekontuan.



UDALAREN AURREKONTUA

SARREREN AURREKONTUA

Kap.	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	133.710
2	Zeharkako zergak	10.000
3	Tasa eta bestelako sarrerak	77.366
4	Transferentzia arruntak	811.388,63
5	Ondare sarrerak	14.200
6	Inber. erre. besterenganaketa	0
7	Kapital transferentziak	378.335,37
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
	Guztira	1.425.000

GASTUEN AURREKONTUA

Kap.	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	446.515
2	Ondasun arruntak eta zerb.	213.405
3	Finantza gastuak	1.200
4	Transferentzia arruntak	133.630
5	Kreditua	0
6	Inbertsio errealak	627.250
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	3.000
	Guztira	1.425.000



UDALBATZAK

2022ko apirilaren 28an eginiko bilkuran honako erabaki hauek hartu ziren:

- 2022. urteari dagokion aurrekontuaren behin betiko onarpena: 1.425.000€.
- Udaleko plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren behin betiko onarpena.
- Maddi Alberdik Itsasondoko Udaleko zinegotzi karguaren uko-egitea jakinaraztea.
- 2021eko martxoaren 15ean, Kale Nagusian prozedura ireki bidez erosteko espedientea jarri zen martxan. Itsasondoko Udalak proposamen bakarra jaso zuen, eta zegozkion akatsen zuzenketa egin ondoren 140 m² lokala eskuratu du, udalak egindako tasazioan (101.578 €).
- Ordenantza fiskalen aldaketa: Hirilurren Balio Gaikuntzaren ordenantzaren behin-behineko aldaketa onartu zen. GAOⁿ argitaratzen denetik 30 eguneko epea egongo da alegazioak egiteko.
- Ordenantza fiskalen aldaketa: hautaketa prozesuetan parte-hartzeagatik zerbitzu tasa onartzea.

AZKEN HILABETETAN ONARTUTAKO DEKRETUAK

- Bizi-nahi eta guraso elkarteari indarrean dagoen hitzarmenaren baitan emandako dirulaguntza.
- Baso pistatik egurra ateratzeko baimena
- Elordiko zelaia erabiltzeko bi baimen eskaera.
- Obra txikietako bi baimen.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzu berri bat.
- Gizarte-larrialdiko laguntzen lau eskaera.

DIRULAGUNTZA ESKAERAK

- EREIN dirulaguntzak. Itsasondoko baserrietan ur-hornidura berria eta hidrante sarea jartzeko lanak. Bigarren fasea. Goierri auzoa.
- Partaidetzako dirulaguntzak. Komunitate energetikoaren jarraipena.
- Garapen jasangarria 2030. Murumendiko korridore ekologikoa.
- Herri bideen laguntzak. Iraola, Saro eta Urkiko bideen konponketa.
- Energia berriztagarrien erabilpena. Ibai-ondo industrialdeko Itsasondoko Udalaren pabiloian instalazio fotoboltaikoa.
- Euskara normalizaziorako tokiko planak.
- Udalak haur, gazte eta nerabeentzako planak.

tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!

Opor aurreko azkeneko asteetan, Korrikaren inguruko proiektuan murgilduta ibili ginen eskolan.



1. zikloko ikasleek eskolan Korrikaren inguruan egin-go genituen ekintzen triptikoa idatzi zuten, Itsasondoko herritarrei horren berri emateko eta etxeetan banatzeko.

5. eta 6. mailako ikasleak, 22. Korrika tartearen ibilbidearen kilometro kopurua aintzat hartuta eta Itsasondoko frontoiaren bueltak duen distantzia kontuan izanik, kalkulu matematikoak egiten hasi ziren. Lortutako kopuruarekin, Lehen Hezkuntzako ikasleek Gorputz Hezkuntzako saioetan frontoian Korrikako ibilbidea osatzeari ekin zioten. Tipi-tapa, tipi-tapa, Korrika!

Horrez gain, Korrikak egiten zuen ibilbidearen zatiak markatzen joateko, Euskal Herriko mapa erraldoia prestatu zuten. Korrika hasi zen egun berean frontoian jarri genuen, eta egun bakoitzean egiten zen ibilbidea markatzen joan ginen. Eskolako ikasle guztiek parte hartu zuten.



Gainera, Korrika Amurriotik atera zeneko irudiak eta egunero Korrikaren zuzeneko irudiak ikusi genituen. Bestetik, aurreko urteetan egin diren abestiak entzun genituen, petoak margotu, Korrikako ipuina entzun, euskalkiak landu Uhinak dokumentala ikusi ondoren, eta egunerako girotze-lanak egiten aritu ginen.

Eskolako azken egunean, ikasle guztiak frontoian elkarrekin, kilometro kopurua osatzeko frontoian azken bueltak eman, eta elkarrekin giro paregabea igaro genituen opor aurreko azken orduak.

ITSASONDON ERE
EUSKARAREN ALDE!
IKA, IKA, IKA, KORRIKA!

Korrika!

HitzEkin lelopean iritsi zitzaigun Korrika apirilaren 8an.

Hiru urte ondoren, herritarrok ilusioz heldu genion Korrika eta Korrika Txikia prestatzeari.

Ibilbidean haurrak mailaka antolatu genituen, herriko plazatik Aramako tunelera. 17:30ean, Aramatik etorritako furgoneta aurretik zela, Korrikari hasiera eman genion.

Haurrek ibilbide ederra egin zuten lekukoa eskuz esku pasatuz.

Aramako tunelean, aramarrak hartu zuten lekukoa, eta haiek ere ilusioz eraman zuten lekukoa, oihu eta musika artean, herriko frontoiraino.

Frontoian, indarrak berreskuratzeke txokolatada egin zen. Ondoren, Jonen eta Aneren eskutik, jolasak antolatu ziren. Primeran dena!

Hala ere, urduritasun puntu bat bagenuen barruan, iluntzean herritik Korrika handia pasatzen zelako.

19:00 aldera jaitsi ginen herrira. Plazan bazen festa: DJa, batukada, bokata-jatea... Guraso elkarteak, herriko beste elkarteekin batera, bere ekarpen txoa egin zuen kilometroa erostean. Korrika 20:40 aldera iritsi zen herrira. Zenbat urduritasun, emozio, alaitasun... Ederra!

Herritarrok korri egin genuen, hauspoa berotu arte... denok helburu berberarekin: euskara eta euskara!

Segi dezagun horretan!
Hauspotu dezagun euskara!
Hitz Ekin!!!
IKA, IKA, IKA, KORRIKA!

Ohitura denez, Aramakoe-kin batera antolatu zen Korrika Txikia. Korrikan erabili zen pankarta gure haurrek margotu zuten, Jon eta Ane hezitzaileen gidaritzapean.



Bazkide berriak Arbel-aitz elkarte



Arbel-Aitz Elkarte
Gastronomikoa
Itsasondoko bizitza
sozialaren ardatz
garrantzitsuenetako
bat da.



Elkaratean biltzen dira bazkideak beste bazkide batzuekin, senideekin edo gonbidatuekin, bazkaltzeko edo afaltzeko. Itsasondoko bizitza sozialean eta aisian garrantzi handia dauka elkarteak.

Azken urte hauetan bazkide beterano batzuek utzi gaituzte, hainbat arrazoiengatik, eta bazkide berrien beharra daukagu elkarteari bizirik eusteko.

Bazkide egiteko baldintzak honako hauek dira: sarrera moduan 0 € ordaintzea, eta hileko kuota, 24 €.

Interesa duenak telefono hauetara dei dezake ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara: 943 88 13 39 edo 677 98 30 53. Mezu bat ere bidal dezake helbide honetara: arbelaitz@itsasondo.eus. Animatu!

Zuen zain gaude!

Itsasondoko Arbel-Aitz Elkarte Gastronomikoa.

.....
 Ia urtebete pasa da 2021eko ma-
 iatzean nerabeen lehen parte-
 -hartze prozesua egin genuene-
 tik, baina horrek ez du esan nahi
 denbora honetan geldik egon
 garenik: hori aurrera eraman
 ahal izateko beharrezkoa zen
 lanketa egiten aritu gara.



Parte-hartze prozesuan aurrerapausoak

Lehen urrats hartan bizi garen herriaz hitz egin genuen, gustuko dugunaz eta aldatuko genukeenaz, ematen digunaz eta eskaintzen diogunaz. Hausnarketa atal horren ondorio izan ziren zenbait eskaera bideratu genizkion udalari, hainbat behar zeudela hautemanda:

- Gaztelekuko plazarako iturria eta zabor ontziak.
- Beheko kaleko argiztapena.
- Miradoreko bidea eta mahaia.

Eskakizunak eginda, udalaren erantzuna jaso genuen; eskatu ziguten aldaketaren bat behar zuten guneak proposatu ez ezik aldaketa bera nola egingo genukeen zehazteko. Horregatik, martxan jarri ginen, eta gure eskaerak pixkanaka lurrera jaitsi eta egingarri bihurtu nahi izan ditugu. Udalak, bere aldetik, proposamenak aintzat hartu ditu,

eta arkitekto baten ikuspuntua jasoz erantzun die gure eskaerei. Jarraian azalduko ditugu proposamen-erantzunak xehetasun handiagoz.

Lehenik, gazteleku inguruari erreparatu zitzaion, iturri bat eta zaborrontziak txertatzeko proposamena egin baitzen bere garaian. Gaztelekua herriaren goialdean dagoenez, ez dago oso eskura, eta, gainera, bertan erosoago egoteko, aipatutako elementuen beharra ikusten da. Izan ere, bertan izan ezean, aldapa jaitsi eta beheko zelaietako iturrira jaitsi behar baita; berdin gertatzen da zaborrontziekin. Horregatik, horiek non kokatuko genituzkeen adostu zen, gaztelekuko plaza geureago eta erosoago egiteko.

Zaborrontziak gaztelekuaren atzealdean kokatzea proposa-

tu zen, eta udalak egoki jo zuen egindako hautua. Horregatik, trabarik gabe jar daitezke zaborrontziak aipatutako tokian, eta lan horri ekingo diola erantzun du udalak.

Iturriari dagokionez, udala ere bat dator gaztelekuko plazan honen beharra badela, baina proposatutako kokapenak zenbait zailtasun dakartza —adibidez, obra egin beharra—. Aurreko proposamenak baino lan handiagoa eskatzen badu ere, udalak egoki jo du ideia, eta proposatu du ur-hodiak gertuago dauden leku batean jartzea, gaztelekuko paretan edo.

Nerabeen esanetan, herrian oso gustuko ez duten beste gune bat Beko kalea da. Izan ere, behin baino gehiagotan adierazi dute oso toki iluna dela. Horregatik, ostiral arrats batean bertara joan ginen ber-



tako kale-argien kokapena eta argiztapena aztertzeraz. Lehen begiratuan ez dirudi bereziki iluna, baina bertatik igarotzean hainbat txokotan hobekuntza beharra topatu dugu.

Adibidez, konturatu ginen kale-argi bat edo beste itzalita zegoela. Kalearen erdialdera iristean, nabari da argi askoz ere gutxiago dagoela, kale-argi batetik hurrengorako tartea gero eta handiagoa baita. Gainera, etxeetara sartzeko zubiek ere itzal dezente egiten dute, argazkietan ikus daitekeenez. Horrez gain, ka le-argi batzuk oso altuak direnez —etxeetako paretetara lotuta daudenak—, besteek baino argi gutxiago ematen dute. Kalearen amaieran ere iluntasun handia dago; industrialdera iristean kale-argiak ez daude horren maiz, eta tarte hori ilun geratzen da.

Proposamena litzateke, beraz, aipatutako puntuetan argiztapena hobetzea, izan kale-argiak elkarrengandik hurbilago jarriz edo beherago ipiniz. Egindako behaketa lana esker-tu digu udalak, eta sumatutako hutsuneak adituekin kontrastatzeko prestasuna adierazi digu.

Amaitzeko, Miradorera joan ginen, eta ikusi genuen bertako bidea txikituta zegoela, luiziren baten ondorioz edo. Horregatik, aproposa ikusten dugu hori konpontzea, nerabeak gustura joaten baitira eremu horretara. Agian ez da udalaren eskumena, baina, badaezpada, proposamen hori ere egin zen.

Udalak nabarmendu zigun bertako egoera kaskarra zela, baina adierazi zigun hainbat oztopo zeudela hobekuntza horiek egiteko: batetik, lursaila ez

da ez udalarena eta ez publikoa, eta edozein mugimendu egiteko lurjabearen baimena beharko litzateke; bestetik, lanak egiteko baimena jasota ere, udalak segurtasun-baldintza minimo batzuk bete beharko lituzke obretan, eta kasu horretan ez lirateke beteko. Gainera, adierazi ziguten obra handia beharko litzatekeela toki egokia eta segurua egiteko: garbiketa, lur mugimenduak... Hortaz, udalak oso zail ikusten du esku-hartze bat egitea.

Kontuak horrela, pixkanaka bagoaz gure ikuspuntua herri-za zabaltzen, eta, pauso txikiak eman arren, bagoaz aurrera. Ea datorren aldikaria idaztean hainbat aurrerapen egin direla helaraz dezakegun. Ikusiko dugu elkar.

Hamarretik zazpi euskaraz aritzen dira kalean

Hizkuntzen kaleko erabilera neurtu da Itsasondon, bigarren aldiz. Euskararen erabilera %70ekoa da, aurreko neurketan baino 12 puntu txikiagoa. Umeek eta gazteek egiten dute euskaraz gehien Itsasondoko kaleetan, eta nabarmen atzerago dago helduen eta adinekoen erabilera.

Zenbat euskara entzuten da Itsasondoko kaleetan? Hizkuntzen erabilerrari buruzko neurketa egin da bigarren aldiz herrian, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eskutik, eta hau da ondorioa: kalean dabiltzanen %70 aritzen dira euskaraz, %28 gaztelaniaz eta %2 beste hizkuntza batzuetan. 2017an egin zen aurreko neurketa, eta izan dira aldaketa batzuk ordutik: euskararen erabilera 12 puntu jaitsi da, eta gaztelaniaren eta beste hizkuntza batzuen erabilera, berriz, hazi.

Kale neurketa iazko irailean egin zen Itsasondon, herriko boluntario batzuen bidez. Nola? Boluntarioak herriko kaleetan ibili ziren, paseoan, eta, jendea

hizketan entzun ahala, datu hauek apuntatu zituzten aplikazioan: hiztunen sexua, adina eta zein hizkuntzatan ari ziren. Emaitzak fidagarriak izan daitezten, elkarrizketa asko jaso behar dira, eta lagin oso handia bildu da Itsasondon: 524 solasaldi eta 2.090 solaskide.

Itsasondon ez ezik, beste 93 udalerritan ere neurtu da kaleko erabilera, eta UEMAK argitaratu ditu emaitzak. Oro har, 2017ko berbera izan da euskararen erabilera UEMAKo udalerrietan, baina bi aldeko txanpona erakutsi dute datuek: udalerririk euskaldunenetan, arnasguneetan, jaitsi egin da euskararen erabilera; arnasgune ez diren herrietan, udalerrri handiagoetan, igo.

Adinaren araberako aldeak

Erabilera adin taldearen arabera aztertuta, diferentzia nabarmenak daude. Euskal Herrian hau izan ohi da joera: zenbat eta gazteago, erabilera handiagoa. Hori erabat betetzen da Itsasondon: umeek dute erabilerarik handiena (%88), eta gazteek ondoren (%83); helduetan eta adinekoetan apalagoak dira ehuneko horiek. Hala ere, adin talde guztietan euskara da hizkuntza nagusia.

Adin talde bakoitzaren bilakaerari erreparatzen bazaio, zera da ondorioa: umeen eta gazteen erabileran apenas izan da gorabeherarik, eta helduen eta adinekoen jaitsiera da nabariagoa. Finean, Itsasondon izandako beherakada helduen eta adinekoen jaitsierarekin dago lotua.





Beste bi emaitza argigarri ere eman ditu neurketak. Batetik, generoaren arabera diferentzia: emakumeek gehiago egiten dute euskaraz (%73), gizonak baino (%67). Bestetik, umeen presentzia: umeak aurrean daudenean gehiago egiten da euskaraz, helduak soilik daudenean baino.

Nola interpretatu

Euskararen erabilera %70ekoa da, beraz, Itsasondoko kaleetan. Asko ala gutxi da hori? Kontuan hartu behar da zein den herriko egoera soziolinguistikoa. 2016ko azken datuen arabera, itsasondoarren %77k dakite euskaraz, eta etxean %55ekoa da erabilera. Datu horiekin konparatuta, ez da txikia Itsasondoko kaleetako erabilera. Jaitsiera izan da, nolana ere.

Datu horiek interpretatzean kontuan hartu behar da aldagai bat: kalean dabiltzanen jarduna neurtzen da behaketa honek. Beraz, gerta daiteke herriko bizilagun batzuk behatu ez izana, ez dutelako bizimodurik egiten herriko kaleetan, eta, aldi berean, gerta daiteke Itsasondokoak ez diren herritar batzuk ere sartu izana neurketan, behaketa egiteko garaian herrian zebiltzalako (plazan, bidegorrian...). Hortaz, kaleko erabileraren datuak hau esan nahi du: Itsasondoko kaleetan zenbat euskara entzuten den, hizketan ari direnak itsasondorrek edo bisitariak izan.

HIZKUNTZEN ERABILERA ITSASONDOKO KALEETAN

Erabilera orokorra

	2017	2021
Euskara	1,8	70
Gaztelania	17,9	28
Besteak	0,3	2

Euskararen erabilera, adinaren arabera

	2017	2021
Umeak (2-14)	89,4	88
Gazteak (15-29)	81,2	83,3
Heldu gazteak (25-39)	78,9	71
Heldu nagusiak (40-64)	78,9	65,1
Adinekoak (65-...)	70,2	55,1

Erronkei erantzuteko, aldaketa

Arrazoi pertsonalak tarteko, zinegotzi karguari uko egin dio **Maddi Alberdi** zinegotziak. Haren ordeaz, **Iker Mendizabalek** hartuko du kargua, indarrean dagoen legealdia amaitu artean, 2023ko maiatza bitartean.



Legealdia amaitzean, karguari uko egitea erabaki duzu. Zergatik?

Maddi Alberdi: Udalean sartu nintzenean, ikasketak bukatu berri nengoan. Une horretan, ez nuen lanerako aukera handirik, eta aukera polita iruditu zitzaidan udalean sartzeko. Dena den, argi nuen irakaskuntza arloan lanerako aukera sortzen zitzaidan unean hau alde batera geratuko zela. Eta horixe gertatu da: oposizioak atera nituen, lanean hasi nintzen, eta, lanean hastearekin batera, nire lana eta pasioa den horri [irakaskuntza] eskaini diot denbora, eta, hala, tarte gutxi geratu zait udalean aritzeko.

Bestetik, bada denboratxo bat Legorretan bizi naizela, eta beste herri batean bizitzeak distantzia puntu bat jarri du udalaren eta nire artean. Neke ere hor dago. Bi legealdi dira, eta momentu oso onak

bizi izan ditugu, baina baita gogorrak ere, eta horrek ere pisua izan du erabakia hartzerako garaian.

Lan handia esan nahi du udalean lan egiteak? Gero herrian bertan bizitzeak?

M: Nik uste dut norberak jartzen diola muga horri. Sartu nintzenean, ikasketak bukatu berri nituen, eta denbora guztia nuen udaleko lanei eskaintzeko. Eta ordu asko eskaintzen nizkion, nik hala nahi nuelako, konpromiso bat hartu nuelako eta ondo erantzun nahi nuelako. Lehen lau urte horietan lan handia ekarri zidan zerbitu izan zen, baina gustura egin nuen. Lan karga handia izan da, baina nire pozak ere jaso ditut.

Iker, zu berriro animatu zara. Bi legealdi egin zenituen aurrez, eta, orain, Maddik kargua uztean, zinegotzi kargua hartzea egokitu zaizu.

Iker Mendizabal: Bi legealdi eman nituen udalean. Lehen legealdian, Euskal Herritarrok taldearekin aurkeztu nintzen, eta, ondoren, alderdiaren ilegalizazioa etorri zen. Orduan, gestore modura lan egin genuen aurreko legealdian ibili ginenok.

Irizarren lan egiten dut, eta inoiz ez dut lana utzi. Bi "lanak" batera eraman izan ditut beti. Zortez, ordutegi malgua dut lanean, eta, horri esker, sartu eta irten ahal izan nuen behar izan nuen; moldatu egin nintzen.

Orain, Maddik kargua utzi behar zuela esan zidaten, eta, zerrendan nengonez, onartu egin dut. Azken batean, zerrendak aurkezteko garaian konpromiso bat hartu nuen, eta bete egingo dut. Hitza ematen bada, bete egin behar da; argi dut hori. Beste urteren batean, zerrendak osatzeko nire izena



jarri behar bada, neure burua aurkezteko prest nago.

Buru-hauste horretan guztian, zure pozak ere jasoko zenituen, orduan?

I: Egia esan, ez. Urte oso gogorak eta txarrak pasa genituen ilegalizazioko lau urte horietan. Zazpi zinegotzietatik hiru bakarrik ibili ginen lanean, eta oso-oso gogorak izan ziren urte haiek. Bi egoera oso xeberre bizi izan nituen, eta bietan dimisioa eskatu nuen, baina ez zidaten onartu, zegoen egoerarengatik, eta aurrera jarraitu nuen.

Gauzak asko aldatu direla uste duzu?

I: Bai, asko, bai lehen legegalditik —hura oso ondo joan zen—, baita ilegalizazioko urte haietatik ere. Nik eraman ditudan arloetan, adibidez, asko aldatu dira gauzak, bai. Kultura konputuetan ibili izan naiz ni, eta, egun, gazteria eta kulturako

teknikari bat dago lanaldi erdira, adibidez. Horrek asko erraztu du zinegotzi lana. Nire garaian zinegotzia bera arduratzen zen lan horietaz guztietaz: aurrekontuak eskatu eta begiratu, ekintzak antolatu... Alde horretatik, asko hobetu da.

Beste arloetan ere teknika-riak egongo dira, eta, beraz, gauzak hobetuko zirela uste dut.

M: Ni egon nintzen garaian, gazteria arloko teknikaria egon bazegoen, baina ardura asko zituen: liburutegia, kultura, gazteria... Lanak banatu egiten genituen.

Lan horietarako teknikari bat egoteak asko erraztu du zinegotzian lana. Inbertsio ekonomiko bat izan da, baina beharrezkoa zen hor inbertitzea. Azken batean, bestela, kulturako zinegotziaren lana mugatzen zen ekintzak anto-

Legaldiari begiratu

Otsailaren 19an, Itsasondoko EH Bilduk batzarra egin zuen, herritarrekin herriaren errokei buruz aritzeko. Udaleko lanetan buru-belarri dabilzan zinegotziek eta alkateak eman zioten batzarrari hasiera, 2019an legegintzaldia hasi zenetik hona egindako proiektu eta lanen berri emanez; besteak beste, udaleko lantaldean izandako aldaketak, haur parkearen prozesua, dendaren berrantolaketa eta lokal berriaren erosketa, ingurunean eta baso lurretan egindako erosketak, eta lanen eta kale lanen errepasoa. Proiektuen artean azpimarratzekoa da, alde batetik, bere tamaina eta eraginagatik, eskola berria; lanak 2023eko irailean hastekoak dira. Bestetik, Euskal Herrian ez ezik kanpoan ere interesa piztu duen auzokompost egiteko sistema berritzailea.

Zinegotzi eta alkateak emandako azalpenen harira, gaur egun herrian dauden ahalguneak eta indarguneak identifikatzeko lanari ekin zioten bertaratuak, hasieran banaka, gero taldetxotan eta, azkenik, talde handian.

Hainbat indargune definitu baziren ere, bereziki ahalgunez aritu, eztabaidatu eta elkar ulertzeko denbora hartu zuten batzarrera etorritakoek, ariketa horren garrantzia egin beharrekoak zirriboratu eta adostean baitago. Hala, argi dago erroka ugari eta ederrak dituela herriak begi-bistan, hala nola Ertotzek etorkizun publikoa izan dezakeela aztertzea, ongizatea eta etxebizitzaren gaien arteko harreman estua eta gure herriaren biziraupenerako horrek duen garrantzia, tokiko energia-komunitatearen prozesuak dituen gorabeherak ezeta San Juan auzoa erabat ahaztua izatea.

Baina, zerrendatutako erroka guztien artean, bi jo zituzten landu beharrekoetat batzarrera etorritakoek: herritarrek herriko jardueretan duten parte-hartzea sustatzea eta nerabe zein gazteek herriarekiko duten atxikimendua areagotzen laguntzea.

Hala, udal taldea jakitun da bi horiek ez direla orain sortu diren erroka berriak, ezta makilatxo magiko baten bidez erantzuten diren desafiok ere, baina batzarraren jasotako proposamenen eta iritzien arabera, ezta itsasondorrok egunerokoan egindako lanarekin askatu ezin ditugun korapiloak ere.

lutzer, aurrekontuak eska- tzer, jendearekin harremanak egitera eta beste. Eta horiek ez dira zinegotzi batek egin beharreko lanak.

Ezer sumatu duzue faltan? Zer aldatuko zenukete?

I: Zinegotzi batzuen konpromiso falta sumatzen dut faltan. Hauteskundeetara aurkeztu eta kargua hartu bai, baina lanerako ez dira egoten. Azken hiru legegaldietan kargua hartu dute, bai, baina gero ez dute ezertan parte hartu, ezta ideiak emateko ere. Herritarrei jakinarazi behar zaie lanerako eta eguneko jardunerako bi zinegotzi gutxiago izateak lan handiagoa esan nahi duela lanean ari direnentzat.

Haiek irabaziko balute?

I: Alderdia ilegalizatu zutenean irabazi zuten, eta orduan ez zuten kargurik hartu.

M: Izugarritzko gola sartu ziguten aldi hartan. Ni udalean sartu nintzen urtean [2015], EAJk bi zinegotzi atera zituen, eta EH Bilduk, 5. Kargua hartzera etorri zirenean, parte hartzeko konpromisoa hartzen zutela zioten, baina errealitatean inoiz ez da bete emandako hitza. Lehen legegaldia bukatzeaz zegoen horretan, herriari adierazi zitzaion zein izan zen euren postura eta zer egin zuten, aldizkarian agertu zen artikulu batean. Hurrengo legegaldian ere berdina egin zuten, eta orain aurkeztu direnak ere bide berdinetik dabilta.

Bere garaian, bi zinegotzi horiek galtzeak ekarri zigun gure antolaketa eta lan egiteko modua moldatzea eta egokitzea. Zeren alde handia dago zazpi zinegotzi izatetik bost izatera.

Herritarrek laster ulertu zuten zein zen egoera, eta berehala erakutsi zuten euren prestutasuna lan egiteko, eta hori oso eskertzekoa da.

Izan ere, zortez, herri honetan ez dugu soilik zinegotzietan funtzionatzen; herri mugimendu bat du udal taldeak atzetik, eta jende asko dago lanerako prest, zorionez. Azken batean, horrek ematen dio indarra herriari, eta ez mahaian dauden bost zinegotzi horiek. Bostek ematen dute aurpegia, baina horrek ez du esan nahi bost horiek direnik herri hau aurrera ateratzen dutenak, ezta gutxiagorik ere.

Herritar bezala nola ikusten duzu udalaren jarduna?

I: Hiru batzorde daude herrian [Herri bizitza, Ongizatea, eta Lurralde antolaketa eta Hiri-gintza], eta haiekin lan egiten da. Batzordeek lan handia kentzen diote udalari, eta uste dut bete-betean asmatu dela batzorde horiek sortzean eta herriaren inplikazioa bilatzean. Eta Maddik zioen bezala, herritarrek egin dezatela udala edo herria, eta ez soilik zinegotzietan. Uste dut gauza batzuk ez direla oso ondo koordinatu, baina akatsetatik ere ikasi egiten da.

Zu oso herritar inplikaturazara, Iker. Inplikazio hori beharrezkoa dela uste duzu?

I: Txikitatik ikusi dut etxean gurasoek herriko ekintzetan parte hartzen, eta guri barruraino sartu digute hori. Eta nik uste beharrezkoa dela. Lehen aipatu dugun moduan, herria ez baitu egiten soilik udal taldeak; herria herriko jendeak egiten du, batzordeek, elkarteek, baita kanpotik etorritako herri-

tarrek ere. Beraz, nik uste dut parte hartu behar dela. Parte hartzean ikusten duzu zer poztasuna ematen duen, zenbat betetzen zaituen. Jendeak bizi beharko lukeen poztasuna da hori.

Jendea animatzen da? Edo beti betikoek parte hartzen jarraitzen dute?

I: Azken urteetan inplikazioa aldatu dela esango nuke. Agian oraindik jendeari bileretara joatea kosta egiten zaio, baina, ekintza egiten den egunean, handik eta hemendik jendea hurreratzen da laguntzera, saguen modura. Oraindik hainbat kolektiboengana ez dugu iristea lortu —atzerritarrek—, baina, oro har, jendeak laguntzeko prestasuna du. Kolektibo berri horiengana hurbiltzeko ahalegina egiten ari da Ongizate batzordea. Poliki-poliki herritar guztiengana iritsiko garela uste dut.

M: Kontziente izan behar dugu herrian antolatzen diren ekintzetara jende asko animatzen dela: antolaketan, bileretan, egunean bertan... Egia da, Ikerrek zioen moduan, bileretara azaltzea kosta egiten zaiela askori, baina ekintzaren egunean edonor egoten da laguntzeko prest. Zinegotzi bezala gu asko mugitzen gara: bilerak antolatzen, ekintzak eta dinamikak pentsatzen... Eta bilera horietara bizpahiru katu agertzen direnean, asko frustratzen zara. Askotan kosta egiten zaigu hori onartzea eta asimilatzea, baina jende bakoitzari bere espazioa eman behar zaio, asko ez baitaude prest gela batean sartu eta antolaketan parte hartzeko, baina bai, ordea, antolatutako

ekintzan parte hartzeko eta egunean bertan laguntzeko: mahaia eta aulkiak jartzen, parte hartzen, guztia jasotzen... Beraz, hori ere bereizten jakin behar da

Zinegotzian lana udaletik kanpoko hori ere bada: arratsaldeetan plazan jendearekin egotea eta harremanak egitea. Plazako eta parkeko ordu horietan sortzen edo eraikitzen da oinarri soziala, eta ez udaletxean. Oinarri sozial hori beharrezkoa da. Horregatik oso garrantzitsua da zinegotziak espazio horietan ere egotea. Hain zuzen ere, horregatik da garrantzitsua perfil ezberdineko jendea egotea zinegotzi mahaietan, eta, modu horretan, leku eta jende ezberdinetara iristea.

Zinegotzi lana boluntarioa da, hein handi batean. Herriaren alde lan egiteak ematen dizue zerbait? Nola sentitzen zarete?

I: Satisfazio pertsonala da. Gogobete egiten zaitu. Gauzak ez dituzu egiten norbaitek eskertzeko, zu gustura sentitzeko baizik. Nahi duzu herriak ahalik eta egokien funtzionatzea, eta horretarako lan egiten duzu.

M: Argi dago hemendik ez garelako aberastuko, baina gogobete, bai. Azken batean, konpromiso kontua da. Ikerrek herriarekiko atxikimendu eta konstantzia hori ikusi duen moduan, ni sartu nintzenean ere oso erreferente onak zeuden udaletxean, eta gehienbat emakumezkoak gogotsu lanean, beti inguruan izan ditugun horiek. Une batean hausnartzen jartzen zara, eta esaten duzu: "Haiek egin dute lana, eta orain guri tokatzen zaigu bidea egitea, ez bai-



tiegu utziko beti berberei lan egiten".

Denok hartu beharreko ardurara delako uste dut, eta, azken batean, zu bizi zaren herrian jan eta lo egiten duzu, baina bizi ere egin behar da, eta, hain zuzen, bizi hori norberak ematen du, eta norberak du horren ardura.

Konpromisoa hartzen duzu, eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen zara. Ez duzu lan egiten inor zu zoriontzera etortzeko. Niretzat zoriontzia da antolatutako ekintzetan parte hartzea; hori da modu bat egindako lana aitortzeko eta eskertzeko. Jendeak parte hartzen badu eta gustura badago, gauzak ondo egiten ari izaren seinale da. Horrek asko betetzen zaitu.

Adibidez, festen antolaketa bileran zortzi lagun baino askoz gehiago ez dira elkartuko, eta hori asko da; baina, ondoren, paella janean 200 lagun ikustea izugarria da.

Nolako herriarekin egiten duzue amets? Nolako herria nahiko zenukete?

M: Denok dakigu herri txiki bat dela Itsasondo. Gazte garen garaian, denok irteten gara herrietik, ikasketak egitera, adibidez. Baina nik amesten dudana herri horretan, jendea berriro herrira

itzultzen da. Nik uste dut itsasondoarrek sentitzen dugula herri nortasun hori. Nik nahi dudana da nire ondorengoek ere nik sentitzen dudana hori sentitzea, Itsasondo izatearen harrotasun hori izatea. Eta hori nola lortzen da? Konpromisoa dago tarteko. Herri honen alde lan egiten baduzu eta dinamika horretan sartzen bazara, herriak ere itzuli egiten dizu satisfazio hori, eta herriarekiko lotura hori sortzen duzu. Nahiz eta munduaren beste puntan bizi, ni beti izango naiz Itsasondokoa. Identitate hori sortzen dugun unetik egiten dugu berezi herri hau.

I: Bere gauza onak eta txarrak ditu, baina ez nuke ezer aldaturiko Itsasondotik. Maddirekin erabat ados nago: edozein lekutara zoazela ere, senti zaitetz harro Itsasondokoa zarela. Nahiz eta urteak pasatu kanpoan, esan ezazu itsasondoarra zarela. Kuadrillako bat badut ia 30 urte daramatzana Katalunian bizitzen, baina hark beti esango du Itsasondokoa dela.

Berdin du herria nolakoa den (polita, itsusia, txikia, handia...); garrantzitsuena da nortasuna duen herri bat izatea. Eta herriarra harro izatea, Itsasondokoa delako.

Tertulia literarioak

.....
 Topaketan parte hartzen duten pertsona guztiekin elkarrizketan oinarritutako esanahiaren eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa da.

TERTULIA LITERARIOAK

Elkarrizketa dialogikoen bidez, ikasleen ikuspegi zuzena sustatzen da, adinaren, generoaren, kulturaren edo gaitasunaren bereizketarik egin gabe, kultura klasiko unibertsalera eta gizateriak denboran zehar pilatutako ezagutza zientifikoetara.

Tertulia batean, sentimenduak, ideiak, sentipenak eta bizipenak azaldu behar dira. Horiekin eraldaketa bat gertatzen da ikasleengan, boluntarioengan eta irakasleengan, eta pertsona toleranteagoak, ulerragoak eta kritikagoak sortzen dira, eta bizikidetzeta hobetu.

Tertuliaren funtzioetako bat ahotsa ematea da, elkarrizketa bat sortzea, eta inoiz ez zalan-tzan jartzea inongo iritzi edo ideiarik.

Ezagumendu bati jarraipen bat ematea izango litzake, elkarrizketaren bitartez; hasiera batean banaka (autore eta ikaslearen artean) eta ondoren modu kolektibo batean, irakurritakoa hobetzeko eta zabaltzeko.

Ez gara oinarrituko soilik autoreak idazterakoan zer esan nahi zuen aztertzean: hausnarketa bat eta elkarrizketa bat sortu nahi dugu, testu baten inguruan egon daitezkeen interpretazioak landuz.



ZERGATIK AUKERATZEN DIRA KLASIKO UNIBERTSALAK?

Garai ezberdinak gainditu dituzte, hau da atenporalak dira.

Erabilitako gaiak unibertsalak dira, traszentalak, pertsona izaerarekin bat doazenak.

Gai ireki eta anitzak eskaintzen dituzte.

Edozein kulturatatik eskuragarri dira (*Mila eta bat gau, Pinocho, Andereñoak...*).

Harresi akademikoen suntsitzea (inklusio soziala).

Rolak gainditzea dakar.

Kultura herrikioen etengabe-ko erreferentziak.

OINARRI ZIENTIFIKO BAT DU

Hainbat autoreren arabera (Vigotsky, Mikhail Bahthin, Paulo Freire, Jerone Bruner...), elkarriketa dialogikoak oinarritzeko prozesu psikologikoetatik harago joaten dira, goiko pentsamenduetara, non gure haurrek ulermen kritikoa lantzen duten irakurketatik harago.

ZER LORTZEN DUGU?

Irakurketaren ulermena eta ahozko adierazpena hobetzen da, eta hiztegi berria barnertzen dugu.

Taldean ikasten dute. Ezberdintasunak desagertu egiten dira, guztiak parte hartzen dute; saiatzeko dira kontzeptu bat, egoera bat edo adierazpen bat elkarrekin ulertzen, ikuspuntu ezberdinak eta ezagumenduak eraikitzen, guztien artean.

Tertuliak inklusiboak dira ikasle guztiak kontuan hartzen dituztelako. Bestetik, tertuliek enpatia gaitasuna hobetzen dute, bestearen tokian jartzen laguntzen dutelako. Beren emozioak eta pentsamenduak adierazten dituzte, eta horrek posible egiten du arazoan edo gatazken konponbideak proposatzeko ikuspuntu ezberdinak aztertzea (errespetuan oinarrituz).

Tertuliek irakurzaletasuna bultzatzen dute, eta taldeko partaideen arteko loturak sortzen. Iritzi pertsonalak emateak aukera ematen digu gure pertsonarekiko arlo ezberdinak ezagutzeko, are gehiago aniztasun handia badugu; ohitura eta kultura ezberdinetako komunitatea izanez gero, aukera aberatsagoa izango da gure ikaskuntza.

Egoera bikaina da elkartasunaz, tolerantziaz eta maitasunaz hitz egiteko. Ikuspegi zabalago bat lortzen dugu munduaz klasikoaren bitartez.

NOLA ANTOLATZEN DIRA?

- Ikasleak borobilean esertzen dira lurrean edo aukietan, mahaiak kenduta.
- Liburu bat aukeratzen da, eta beti klasiko bat izan behar du.
- Lehenengo saioan, adieraz ditzakete beren usteak liburuarekiko, hari buruz zerbait dakiten...
- Egunero edo astero zenbat irakurriko den zehaztuko da (orrialdea edo kapituluak).
- Moderatzaileak, saioaren hasieran, tertuliaren arauak azalduko ditu, eta tertuliari hasiera emango zaio. Hitza emango dio paragrafoa markatua edota izendatuta duenari, eta horren zergatia adieraziko du. Taldeko beste kideei ere aukera emango die paragrafo horretaz hitz egin nahi badute. Moderatzaileak ez du bere iritzia inposatzen: beste pertsonak beren argudioak emateko aukera bultzatzen du, lehentasuna emanez guztien parte hartzen duenari.
- Ondoren, eskua altxatu duten beste pertsonari emango dio hitza, eta berriro beste taldekoei aukera emango die beren iritzia adierazteko. Prozedura hori egingo da liburuaren amaitu arte.
- Azken bost-hamar minutuetan, bakoitza nola sentituen adierazten da, eta moderatzailearen paperari buruz iritzia ematen da, beti modu eraikitzailean eta begirunez.
- Saioa ordubeteko izaten da.

ITSASONDOKO TERTULIA LITERARIOAK

(5. eta 6. mailakoentzat)

Maiatzak 16, 23, 30
Ekainak 6, 13, 20

LAS MIL Y UNA NOCHES
(egokitua)
liburuarekin hasiko dira

.....
Belen Mendizabal 1958an
jaio zen Itsasondon,
San Joan baserrian.
Sei senide dira, hiru mutil
eta hiru neska,
eta ni senideetan gazteena da.
.....

Belen Mendizabal

Laguardia (Pontevedra, Galicia).

Nola oroitzen duzu haurtzarora?

San Joan inguruan, aire librean, jolasean, pilotan, baloiarekin, bizikletan... Harreman ona genuen gure artean, baita ingurukoekin ere. Uda garaian gehiago ibiltzen ginen kalean.

Elizara ere igandero joateko ohitura genuen.

Apaiz etxeko saloian telebista ikusten, mahai-jolasak eta abar antolatzen zituzten guraso elkarteak, eta hor ere izaten ginen. Geroxeago kuadrillan ere elkarrekin meriendak-eta egiten genituen Itsasondoko apaiz etxeko aretoan, aurretik apaizari baimena eskatuta.

Gogoratzen dut udaletxeko beheko solairuan mutilak eta neskak musikarekin dantzan aritzen ginela. Hori 1972 inguruan. Lokala erabiltzeko baimena orduko alkate Ibarreko Luisi eskatzen zitzaion.

Irakurtzea ere oso gustuko izan genuen etxean, eta denetik irakurtzen genuen. Itsasondoko liburutegira ostiraletan etortzen nintzen liburuen bila.

Baserriko lanetan aritzea ere tokatu zitzaigun, batez ere uda garaian, baina lan astunenak gurasoek, osabek eta anaiek egiten zituzten. Baserrian esnea egunero izaten zen, eta ingurukoak etortzen ziren esnea jasotzera. Ama Ordiziako feriara asteazkeneko joaten zen, baserriko elikagaiekin: babarrunak, porruak...

San Joanen arropa garbitzeko putzua zegoen, eta han ere ondo pasatzen genuen.

Eskola garaiak nola oroitzen**dituzu?**

Eskolan 4 urterekin hasi nintzen Itsasondon, eta ume asko ginela oroitzen dut. Eskola txikian hasi nintzen, iturri txikiaren ondoan zegoen eskola hartan. Gero beste eskolara pasatu ginen, apaiz etxeko horretara, eta, ondoren, eskola berria bukatu zutenean, 1967an hura estreinatzea tokatu zitzaigun, egungo eskola. Azken honetan bi ikasturte egin nituen, 11 urte bete arte. Neskak bakarrik ibiltzen ginen; mutilek eskola zaharrean jarraitu zuten. Erdarazko ikasketak ziren.

Gu adinekoak dezente ginen, baina guztiok elkarrekin ibiltzen ginen, adin guztietakoak elkarrekin: baloiarekin, kantuan...

Haurra zinenetik hona asko aldatu al da Itsasondo?

Erabat. Gu eskolara oinez etortzen ginen. Orduan ez zegoen espaloik, kunetatik etortzen ginen. Uda garaian kotxe pila ibiltzen zen.

Zer ikasketa egin zenituen behin hemengo eskola bukatuta?

Batxilergoa ikasi nuen, eta, gero, administrazioko ikasketak hiru urtez. Batxilergoa bukatu eta uda hartan denda batean hasi nintzen lanean, Ordiziako drogeria batean, tarteka. Aldi berean administrazioko ikasketak egin nituen. Administrazioa bukatu eta bulego batean aritu nintzen, baina ondoren, langabezian. Garai hartan ez zen erraza lana topatzea, eta urtebete inguru egon nintzen lanik gabe. Horiek horrela, gauetan eskolan

jarraitu nuen, ikasten. Beti liburu artean.

Noiz eta nola hasi zinen Itsasondoko Udalean?

Ordizian beste denda batean lanean nembilela, jakin nuen Itsasondoko Udalean lan egiteko administrari baten bila zebiltzala. Izena eman nuen, azterketa gainditu egin nuen, eta lanean hasteko deitu zidaten.

Garai hartan nola funtzionatzen zuen udalak?

Asko aldatu da. Gogoratzen dut ikurrina legeztatu zen eguna: Ordiziako dendan lanean nembilen eta festa handia izan zen. Franco hil ondorengo urteetan aldaketa asko izan ziren; udaletan herritarrek batzordeen bidez parte hartu zuten. Ni Itsasondon lanean hasi nintzenean, 1978ko abenduan, Altzagakoa zen alkatea, Urruti-barrenako Juan, baina harekin batera 15 pertsona inguruko gestora biltzen zen, herri batzarretan. Franco hil ondorengo lehen udal hauteskundeak 1979an izan ziren.

Nor izan zen lehenengo alkatea?

Joxe Mari, Lore Txurikoa.

Udalean hasi zinenetik udal jarduna asko aldatu da?


Bai, guztiz. Ni Marino Aialarekin hasi nintzen. Jubilatzeke adina zuen, eta hilabete inguru aritu nintzen harekin lanean. Hura jubilatzean idazkari berria behar zen. Ni administrari bezala hasi nintzen, eta idazkari lanak egiteko Ikaztegiako idazkaria hasi zen. Baina hark 11 bat herritako idazkari lanak eramaten zituen, eta hona astean behin edo etortzen zen.



Larraitzera irteera (beheran ezkerretako lehena) 1967 inguruan.



Aralarren (eskubikoa) 1978 inguruan.



Llanes, Asturias.



Itsasondoko udaletxean 1982an.

Horiek horrela, nahiz eta administraria izan, hasieratik hasi nintzen idazkari gisako zenbait lan aurrera ateratzen. Garai hartan aldunditik ez zen dirurik jasotzen, eta udalak zituen diru sarrerak oso eskasak ziren.

1982an idazkari lanpostua hutsik geratu zenean, lanpostua hartu nuen idazkari akzidental gisa.

Udal gehienetan, idazkari plazak egoera irregularrean zeudenez, 1988an idazkari lanpostuak eskuratzeko oposizioan antolatu ziren. Idazkari lanetan ari ginen beste hainbat idazkari bezala, ni ere animatu egin nintzen, eta gainditzea lortu nuen. Gerora, zuzenbide ikasketak egitea erabaki nuen, lanerako beharrezkoa izango

nuela ikusten nuelako, beste herri batzuetako idazkari ere hala egin zuten.

Euskarazko hainbat ikastaro ere egin nituen.

Idazkari lanak erakutsi dit beti ikasten aritu beharra dagoela, eta, horretan saiatu arren, ezinezkoa dela dena jakitea.

Gogoan duzu anekdota edo gertakari dibertigarriren bat?

Berri onak asko izan dira, dibertigarriak ez dakit. Behin gogoratzen dut, oker baten bidez, dirulaguntza bera bi aldiz ordaindu zigutela. Akatsaren berri emateko deitu nuen, eta zegoen bezala uzteko esan ziguten.

Eta egoera desatseginen bat?

Askotan borondate onenarekin

zabiltza lanean, baina badira gaizki ateratzen diren kontuak ere. Esate baterako, eskolako obrarekin oso gaizki pasatu nuen. Kontratista batek iruzur egin zuen. Obra guztia subkontratatu egin zuen, baina guk ez genuen horren berririk. Ordaintzeko garaian zenbait gauza ordaindu gabe utzi zituen.

Legeak horretan ere asko aldatu dira horrelako gauzak gerta ez daitezen.

Zenbat korporaziotatik pasatu zara?

11 legealdi edo udal talde eza-gutu ditut. Egoerara moldatzen zara. Halere, zortea izan dut, udal ordezkariak lanerako gogoarekin etorri direlako beti. Saiatu naiz talde bakoitzaren ideiak eta proiektuak aurrera

eramaten laguntzen. Zortea izan dut udal ordezkariekin eta izan ditudan lankideekin.

Gogorra izan da herrian bertan lan egitea?

Egia esan, ez. Lanerako erraztu ere egiten du. Egunerokotasunean bizitza pertsonala eta lana bereizten jakin behar da, baina orokorrean, ondo. Zure herri sentitzen duzun horretan lana egitea aberasgarria da.

Hiru udalerritako kontuak eraman dituzu urte askotan zehar. Nola kudeatzen da hori?

Ahal den moduan. Data jakin batzuetan beti daude egin beharreko lanak: herri batekoa egin ondoren, ba besteetakoak. Askotan gauza bera hiru aldiz egin beharrak badu bere onura. Garai batean festak ere antolatzen genituen. Orokorrean ondo.

Lanetik zer izan da gustukoen-a?

Idazkaritza, kontu-hartzailetza... kontuen gaia gehiago gustatzen zaidala uste dut. Betiere gauzak ondo doazen bitartean, hobeto.

Nola bizi izan dituzu jubilatutik aurreko azken hilabete hauek?

Oso azkar pasatu dira. Konturatzera. 43 urtez aritu naiz bertan lanean. Oraindik ere zerbaitetan lagun badezaket laguntzen dut, zalantzaren bat edo.

Behin erretiroa hartuta zer sentsazio duzu?

Lasaiago nago. Denbora gehiago daukat niretzat. Paseatzeko, etxeko lanetan lasaiago aritzeko... Lau hilabete dira jubilatutik nintzela. Oraingoz, lasai.

Nola ezagutu zenuen senarra?

Itsasondon, festetan etorri zen, eta horrela ezagutu ginen.

Nola oroitzen duzu seme-alabak jaiotza? Lanarekin ondo konpondu zinen?

Oroitzen dut goiz eta arratsaldean lan egiten genuela. Seme-alabak jaio zirenean goizetik lan egitea eskatu nuen, ordutegi jarraiarekin. Baiezkoa jaso nuen. Ondo moldatu ginen. Senarrak gehienetan arratsaldean lan egiteko aukera izan zuen, eta nik goizez. Senarrak eramaten zituen eskolara eta nik jasotzen nituen arratsaldean. Eta beharrezkoa izan genuen guztietan, San Juango baserrian prest izaten ziren umeak edukitzeko, eta hori ere eskertu beharra daukat. Bizilagunak ere beti prest izan genituen.

Orain amona zara. Zer alde dago ama izan edo amona izan?

Desberdina da, beste erabateko harremana. Orain gozatzea egokitzen zait. Bi biloba ditut, Beasainen bizi direnak.

Zer eskatuko zenioke etorkizunari?

Osasuna eta bakea.

Zerbait botatzen duzu faltan herrian?

Itsasondon gauza asko egin direla iruditzen zait. Zerbitzu aldetik eskaintza polita dago: udaletxea, kultur etxea, frontoia, eskola, denda, taberna... Pausoz pauso gauza asko egin dira. Festei dagokienez, data aldatu zenetik agian ez da guztiz asmatu, baina ez dakit. Orokorrean gauza asko egin dira.

Badirudi idazkari falta dagoela.

Garai batean idazkari izateko



Combarro, Pontevedra (Galicia)

zuzenbidea ikasitakoa edo enpresen administrazio ikasketak izan behar zenituen, baina orain aukerak zabaldu dira, eta bestelako ikasketak dituzten lizentziatuak ere aurkez daitezke idazkari lanpostuetara. Halere, orain arte behintzat, udal elkar-teenk —Itsasondo-Arama-Altzaga bezalakoek— izaten dituzte betetzeko zailtasunak.

Zenbat iraungo du planetak? Entzun dut 12 urte...

.....
Lurreko klimaren aldaketa globalari klima-aldaketa deitzen zaio. Arrazoi naturalengatik gerta daiteke, baita gizakiaren eraginez ere, eta hainbat denbora-eskalatan eta parametro klimatiko guztietan gertatzen dira: tenperatura, prezipitazioak, argitasuna...
.....



Klima-aldaketa gure garaiko gaitza da, eta horren ondorioak suntsitzaileak izan daitezke, erregai fosilen eta berotegi-efektuko gasen emisioen mendekotasuna izugarri murrizten ez badugu.

Hauek dira Munduko Meteorologia Erakundeak (OMM) ematen dituen datu batzuk:

- Mundua XIX. mendearen amaieran baino 1°C beroagoa da, hau da, tenperaturaren neurketa fidagarriak egiten ditugun aririk zaharrena, Industria Iraultzak goia jo aurretik.
- 2015etik igarotako sei urteek dituzte daturik beroenak. 2011tik 2020ra bitarteko hamarkada inoiz erregistratu den beroena izan zen.
- 2021eko maiatzean, CO₂-aren hileko batez besteko kontzentrazioa milioi (ppm) bakoitzeko 417 zatiko metatutako maximo historikora iritsi zen berriro, due-la hiru milioi urtetik erregistratzen ez zen CO₂ kopurua.

Entzun duzun 12 urteko epea Nazio Batuek eskatutako txosten berezi batetik dator. Txosten horretan, industria aurreko mailetatik 1,5 °C-ra mugatutako berotze globalaren ondorioak aztertzen dira; emisioek egungo erritmoan jarraitzen badute, 1,5°C-ko berotzea 2030 eta 2052 bitartean iritsiko da.

1,5°C-ko berotze batek ere ondorio negatiboak izango ditu, batez ere eskualde eta populazio kalteberentzat, baina sistema naturalerako eta giza sistemetarako arriskuak 2°C-ko beroketarako aurreikusitakoak baino askoz txikiagoak lirateke, bereziki muturreko gertaeren maiztasun eta intentsitatean, lurreko eta itsasoko biodibertsitatean, ekosistemetan eta horien zerbitzuetan, arto, arroz, gari eta potentzialki beste zereal-elikagai, ur-azpiegitura, abeltzaintza eta bestelako azpiegituretan...

Temperatura globala 1,5 °C baino gehiago ez igotzeko, gizateriak karbono dioxidoaren (CO₂) emisioak egungo mailen erdira murriztu behar ditu hemendik 2030era, eta zeroraino hemendik 2050era.

2030eko epemuga betetzen ez bada, oso zaila izango da berotze globala 1,5°C-tik behera mantentzea. Temperatura horrek ez dakar nahitaez segurtasun-bermerik, baina klima-aldaketak eragindako kaltea askoz larriagoa izango da berotze-maila altuagoa bada.

Gaur egun 1 °C-ko beroketaren mailak muturreko fenomeno klimatologikoak (hala nola bero-boladak edo uholdeak) areagotzea eragin du, eta elikagaien ekoizpean ondorioak ditu.

2 °C edo gehiagoko beroketarekin, itsas maila gehiago igoko da, muturreko fenomeno klimatikoak sarriago gertatuko dira, eta ondorio kaltegarriak izango dira bero-boladek, lehorteek, uholdeek, suteek eta abarrek eragindako elikagaien eta uraren horniduran. Hori dela eta, oso zaila izango da munduko zenbait lekutan bizitzea.

Aurreikus daitekeen ondorioa da pertsona askok beren herrialdeak utzi beharko dituztela eta errefuxiatu klimatiko bihurtuko direla, eta mundu osoko beste milioika pertsona pobrezia eraginpean egongo direla.

Zoritarrez, ez gara behar dena egiten ari beroaldia 1,5 °C-tik behera mantentzeko, ezta 2 °C-tik behera ere. Herrialdeek egungo helburuak betetzen badituzte, tenperaturak 3 °C inguru igoko dira —edo gehiago, emisioek gora egiten jarraitzen badute—.

Planeta, berez, gizakiak eragindako klima-aldaketatik bizirik aterako da. Izan ere, tenperatura altuagoak jasan ditu; duela milioika urte izan zen, nahiz eta garai hartan mundua oso desberdina izan. Baina guretzat kontua da ea gizakiekin edo gizakirik gabe egingo ote duen aurrera.

Jisai Miranda



Zortzi hilabete dira Itsasondora bizitzera etorri zela, familia hemen zuela. Itsasondon zerbitzuak botatzen ditu faltan baina gustura bizi da bertan. Goierriko txokoak eta bere familiarekin hauetaz gozatzea du helburu.

Noiz etorri zinen Itsasondora bizitzera?

2021eko urriaren 20an etorri ginen.

Non bizi zinen lehen?

Managuan bizi ginen, Nikaraguan.

Zergatik erabaki zenuen bizi- tzera Itsasondora etortzea?

Familia nuelako bertan bizitzen.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehenengo egunaz?

Oroitzen dut herri oso lasaia eta atsegina zela sentitu nuela.

Zein lanbide daukazu?

Ostalaritzan lan egiten dut.

Itsasondoko zer ez zaizu gustatzen? Eta zer duzu gustuko?

Zuhurtziaz, herriaren baldintzekin gustura nago.

Zein zaletasun dituzu?

Bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea gustatzen zait.

Janari bat?

Patata tortilla dut gogoko.

Edari bat?

Ez dut lehentasunik.

Itsasondoko edo Goierriko txoko bat?

Ordiziako azoka.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Nire familia ederrak.

Itsasondon biziko ez bazina?

Ordizian, bertan ere familia baitaukagu.


Nola hasi erabiltzen ITSASKLIK appa?

APP




ERREGISTRATU NOLA EGIN

Play Store-an (Adroid) edo APP Store-an (iPhone) bilatu ITSASKLIK aplikazioa eta instalatu zure mugikorrean. Instalatu ondoren, ireki aplikazioa, eta sakatu ERREGISTRATU botoian. Atal honetan eskatzen dizkizun datu pertsonalak sartu, eta sakatu ONARTU. Saioa hasten duzunean, honako informazio hau izango duzu eskuragarri.



INTZIDENTZIAK NOLA EGIN

Herriko azpiegituretan konponketaren baten beharra ikusten baduzu, hemen jakinarazi diezaiokezu udalari. INTZIDENTZIAK atalera sartu, eta bertan azaltzen diren datuek bete; argazkia atera eta igo aplikaziora, kokapena adierazi, eta mezuan idatzi zer ikusi duzun edo zer dagoen konpontzeko. Azkenik, BIDALI sakatu.



ERRESERBAK NOLA EGIN

Herriko udal eraikin/aretoak erreserbatzeko aukera izango duzu. Horretarako, ERRESERBAK atalera sartu eta jarraitu pausoak; eraikina eta aretoa aukeratu, erreserba egin nahi duzun data eta ordutegia, oharren bat jakinarazi nahi baduzu, idatzi testua. Azkenik, ERRESERBATU sakatu.

BESTELAKO INFORMAZIOA

KOMUNIKAZIOA

Albisteak eta abisuak jasoko dituzu.

AGENDA

Herriko talde eragileek eta udalak antolatzen dituen ekintzen berri izango duzu.

INKESTAK

Gai jakin bati buruz duzun iritzia emateko aukera izango duzu.

INTERESGUNEAK


Itsasondoko zerbitzu eta txokoen inguruko informazioa izango duzu.

INFORMAZIOA

Informazio orokorra.

Bihotz-birika birgaitze ikastaroa

Martxoan Bihotz-Birika Birgaitzeko ikastaroa egin genuen herrian.



Osasun alorrean lanean ari diren Donostiako bolutario talde baten eskutik jaso genuen. Bertan ikasi genuen nola jokatu bihotz-biriken gelditzearen edo arnas-aparatuaren buxaduraren aurrean. Ezagutza horien baliagarritasunaz eta garrantziaz jabeturik, uste dugu funtsezkoa dela oinarrizko irizpideak herriko aldizkarian eskuragarri izatea.

Hala, modu laburrean baldin bada ere, lerro hauetan azaldu da nola jardun beharko genukeen halako larrialdi-egoe-
ra batean:

Lehenik eta behin, ezin dugu ahaztu geure burua, eta BAL urratsak jarraituko ditugu:

- Babestu ingurua.
- Abisua eman sorospen-zerbitzuei.
- Laguntza eman kaltetuei.

Saioan aurkeztu ziguten Osakidetzaren APPa, non modu argian azaltzen den landutakoa. Baliabide horren bidez, ikasteko informazioa jasotzearekin batera, aukera ematen du gure inguruan desfibriladorerik badagoen ikusteko, besteak beste.

Beraz, gogoan izan halako osasun larrialdietan ezer ez egitea baino baliagarriagoa izango dela bestea bizirik irte-
teko gure ezagutza gutxi horiek abian jartzea.

Horren ostean, ondorengo irudiak bikain adierazten dituen pausoak jarraituko ditugu:

1 Erantzuten du? ¿Responde?
Deitu Llama ((112))

2 Arnasten du? ¿Respira?

3 **BAI**
Eskatu laguntza
Solicita ayuda
Segurtasuneko alboko jarrera
Posición lateral seguridad
Deitu Llama ((112))

4 **EZ**
Hasi BBB
Comienza RCP
Ahoz-ahokoa ez badakizu egiten, egin 100-120 konpresio minutuko
Si no sabes dar ventilaciones, aplica 100-120 compresiones por minuto

5 **Jarri KDA**
Coloca el DEA
Ahoz-ahokoa egiten badakizu, butar-konpresioekin tartekatuz 30:2
Si sabes dar ventilaciones, alternalas con las compresiones torácicas 30:2

APPa BIHOTZ GELDIALDIA APP PARADA CARDÍACA


DESKARGA EZAZU GURE APPa
DESCARGA NUESTRA APP



Osakidetzako atarian
Portal de Osakidetza

Google Store

Apple Store



Sartu eta bilatu Entra y busca
"PCEH" edo "AYUDA A LA PARADA CARDÍACA"



Eztabaiti, erregulazio, hiru comissio

Hemeroteka

.....
Azken zenbakian (urtarrila) ez zen
hemeroteka atalik izan,
zenbaki berezia izan zelako.
Jarraian, urtarriletik hona herrian
egindakoen kronika laburra.
.....

KIMIKARIN ZIENTZIA TAILERRA (otsailak 11)

Emakume zientzialarien eguna zela eta, herriko haurrekin zientzia tailerrak egin genituen. 25 haurrek parte hartu zuten esperimentuak egite. Oso gustura ibili ziren, eta esperimenduekin asko ikasi zuten. Bost esperimentu egin zituzten, eta deigarrietakoa eskuko sua izan zen.



ZUHAITZ EGUNA (otsailak 26)

Urtero legez, aurten ere zuhaitz eguna ospatu genuen, gure basoetan zuhaitz aldaska berriak landatuz. 120 landaketa inguru egin zituzten joan ziren familiek. Naturaz gozatzeko eta herri giroan egiteko ekintza aparta. Hurrengo urtean gehiago!



MUS TXAPELKETA (otsailak 26)

Herrian izan genuen, Euskal Herriko gainontzeko txoko askoetan bezala, EH Mus txapelketako kanporaketa. Guztira zazpi bikotek jokatu zuten. Hau izan zen emaitza: irabazleak, Aitor Garmendia eta Xabier Iturrioz; bigarren, Gorka Martinez eta Imanol Iturrioz; hirugarren, Jabi Diez eta Joseba Usabiaga; eta laugarren, Lontxo Arza eta Jose Ignacio Arbilla.



PERRETXIKO BILA (otsailak 27)

Gure basoetan perretxiko mota baten bila aritu ginen, bertan jaiotzen ote den jakiteko: marzuolus perretxikoaren bila, hain zuzen. Mota horretako perretxikoak garai hauetan jaiotzen omen dira, baina, bila aritu arren, ez zen halakorik topatu. Mendi buelta egiteko aitzakia ona.





EMAKUMEEN EGUNEKO BAZKARIA (martxoak 5)

Giro ezin hobean ospatu zuten herriko emakumeek Emakumeen Eguneko bazkaria. Ohi bezala, Iker Mendizabalek prestatu zuen menu sorpresa. 40 emakume inguru joan ziren. Aurten, gonbidapen berezia egin zitzairen kanpotik hona bizitzera etorritakoei, eta taldetxo bat joan zen. Ondoren, Janire Aranzaberen emanaldia izan zuten.



EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA (martxoak 8)

Ordizian deitua zegoen deialdiarekin bat egin aurretik, herrian ere aldarria egin nahi izan zuten herritarrek. Arratsaldeko 18:00etan bildu ziren hamabost bat lagun, sistema patriarkalaren aurka eta berdintasunaren alde.



MIRU BERDINTASUN IPUINAK (martxoak 9)

Txikietatik hezi behar ditugu etorkizuneko herritarrak, berdintasunean. Asmo horrekin, berdintasun gaiak jorratzen dituen Miru kontalaria izan zen gurean. 25 bat haurrek aukera izan zuten Miru kontatutako ipuinekin hausnartzeko. Besteak beste, gogorarazi zuten neskek eta mutilak berdinak direla eta pertsonen gaitasunak baloratu behar ditugula.



80 AMANDRE, HELDUENTZAKO KONTAKIZUNAK (martxoak 11)

Aurten ere izan dugu helduok gozatzeko moduko kontakizunak entzuteko aukera. Dorleta Kortazar kontalariak sentipenak sorrarazi zizkigun, hainbat belaunalditako emakumeei gertatutako istorioak modu goxoan kontatuz. Entzuleen artean gazteak eta ez hain gazteak izan ziren, eta ederki gozatu zuten. Hamabost bat ikusle izan ziren.

ARAUAK MODU ASERTIBOAN (martxoak 18)

Hitzaldia izan genuen kulturagunean, etxean gure familietan, arauak nola ezarri ditzakegun aztergai izan genuen. Guraso talde bat bildu zen bertan eta oso partehartzailea eta interesgarri izan zen Donna Apellanizek eman zizkigun pistak.



BIRIKA-BIHOTZ BIZKORTZE IKASTAROA (martxoak 24 eta 30)

Bizitza bat ez galtzea gure esku ere badago, eta egoera horretan aurki daitekeenari lagundu diezaiokegu pauso zehatz batzuk emanez. Asmo horrekin, herriko zortzi bat lagunek egin zuten ikastaroa, bi egunez, bi orduko saioetan.



KORRIKA GIROTZEKO JAIA (apirilak 1)

Aurtengo 22. Korrika etortzeaz zela eta, herrian girotzea egin nahi izan zen: euskararen aldeko mezuak, Korrikaren aldeko materiala, musika, dokumentala... Korrika etortzeko prest!



MEMORIA TAILERREKOEN MERIENDA (apirilak 26)

Eskertza modura, jubilatuek merienda eman zieten memoria tailerra modu boluntarioan ematen dieten herritarrei. Hilero, burua aktibo mantentzen diete, eta arratsalde-pasa polita egin zuten.



KORRIKA JAIA (apirilak 8)

Aldizkarian zehar jaso da bai eskolan eta bai egun berean Korrikari nola eman genion ongietorria. Bejondeizuela, euskaltzaleok! 23. Korrikarako prestatzen hasiko gara...





LIBURUAREN EGUNA PROGRAMAZIOA

Liburu eta aldizkariak hartzeko azokatxoak jarri zen udal-letzeko sarreran, herritarrek bertan nahi zituzten aleak jasotzeko. (Apirilak 25-30)

Kristina Galagarra eta Pilar Irastortza izan ziren kultur-gunean, literatura eta naturaren arteko uztarketa saioa eginez. Elkarri galderak eginez, saio polita eskaini zigten: batek kontatu zigun nola sortu zitzaion idazteko grina, eta besteak, nola hasi zen egurrarekin lanean. Mezu politez betetako saioa eskaini zigten. (Apirilak 27)

Ixabel Agirresarobe izan genuen kultur-gunean ipuinak eta kontakizunak eskaintzen. Oso saio dibertigarria izan zen, eta gerturatu ziren hamabost bat haurrek ederki pasa zuten ametsen mundura bidaiatuz. (Maiatzak 4)

TIPULAREN SEHASKA KANTA (apirilak 29)

Presoak eta gaixotasuna gai hartuta, dokumentala ikusteko aukera izan zuten herritarrek. Ondoren, solasaldia egin zen herriko preso Mikel Otegiren senideekin, eta gertuagotik ezagutu ahal izan zen preso dauden gaixoen errealitatea.

FRONTONA ANTZERKIA (maiatzak 6)

Aparta benetan! Euskal kulturaz eta gure herriaz zer dakigun hausnartzeko aukera paregabea izan genuen. Giro ezinhobean, 75 lagun inguru elkartu ginen frontoian. Herriko kontu zahar eta berriak eta gure kulturaren jakin beharrekoetan inguruan tantoka aritu ginen frontoan.

HERRI URRATS (maiatzak 8)

Berriz ere berreskuratu izan ahal dugu, urteroko ohitura eta Iparraldeko ikastolak laguntzeko asmoz gerturatu ginen Senperera. Bi autobus bete jende joan ginen, eta giro apartan pasa genuen eguna, eguraldia ere lagun izan zen eta.

Gomendioa



LA MIRADA DE MIKEL
Kristina Galarraga
Rubric 2021

Alma, Beasaingo Toki Eder baserrian jaiotako sei anai-arrebako familia ugariko lehena da. Isabel, Almaren ama, hamazazpi urte zituenean hil zen. Orduan, gazteak ikasketak uztea erabaki zuen etxeko agintea hartzeko, bere anai-arreben zantzaz arduratzeko.

Bere bidean, Brigitte bere ametsa egi bilakatzen lagunduko dion emakumea eta Samira izeneko etorkin gazte bat agertzen dita, eskuetan izango dituen erreduren zauriak sendatuko dizkiona eta bere lagun ez ezik, arimaren ahizpa ere bihurtuko dena.

Mikel izeneko lau urteko ume itsu bat adoptatzea erabakitzen du, «Iluntasunean bere argi» bihurtuz.

Arimak ez du bere semeak ikusteko itxaropena galtzen eta, haurrak bost urte betetzen dituenean, Hendaiaara bidaiatzen dute Etxegaray abizeneko kirurgialari ospetsu batek ebakuntza egin diezaion.


Mikelek horrek sortzen dizkion emozio eta sentimendu guztiak ikusten eta kudeatzen ikasi behar du.

Azkenik, mendiko gertakari baten ondorioz, Mikelek bere begirada aurkituko du, benetan garrantzitsuena ez dela begiekin begiratzea eta ikustea, arimarekin baizik.

Berrikuntzak



Violeta
Isabel Allende



El corresponsal
David Jiménez



Mussche
Kirmen Uribe



La vida secreta de Sarah Brooks
Santiago Vera



La noche mas oscura
Hakan Nesser



La bestia
Carmen Mola



Dordoraka begirada
Jon Arretxe



Kantu gara
Jon Maia



Las tinieblas y el alba
Ken Follet

Errezeta**Euskal pastela****Osagaiak (6 lagunentzako):**

Orea egiteko:
 500 g irin
 200 g azukre
 200 g gurin
 2 arrautza
 Koilarakada bat ron
 Koilaretxo bat (kaferako) altxagarria
 Gatz pixka bat
 Pastel-krema egiteko:
 Litro 1/2 esne
 75 g azukre
 1 arrautza goringo - 3 arrautza
 Kanela adar bat
 Gatza

Prestaketa:

Krema egiteko, katilu batean esnea kanela adarrarekin iraki arte berotzen da. Ontzi batean, arrautzak, goringoa, gatza, azukrea eta gordetako esnea irabiatzen dira. Esnetik kanela adarra atera, esne pixka bat nahasketari gehitu eta irabiatzen da. Nahasketa osoa katilura botatzen da. Ondoren, sutan jarri eta irabiatuz loditu arte irakiten da. Crema hozten uzten da.

Bigarren, orea egiteko, irina eta azukre ontzi batean jartzen dira eta erdian zuloa egiten da.

Ondoren, bi arrautza eta gurina bigunduta gehitzen dira. Ronarekin batera altxagarria, azukrea eta gatza gehitzen dira. Dena nahastu eta orea leundu arte oratzen da.

Gero, orearekin bi zati egiten dira, bata handiagoa eta bestea txikiagoa. Moldea gurinarekin igurtzi eta ore zati handia gainean jartzen da, eskuakin zabalduz. Barrua kremaz betetzen da. Ore zati txikia eskuakin zabaldu eta crema gainean jartzen da, tapa gisa. Gainaldea goringoarekin igurtzen da. Azkenik, labean sartu eta 45 minutuz egiten uzten da.

Iturria: <https://unionvasca.weebly.com>

Euskara txukuntzen

EUSKARA MAKARRONIKOA	EUSKARA TXUKUNA
Nork jakinen du hori?	Nork jakinen ote du hori?
Aitonen etxera joan da.	Aiton-amonen etxera joan da.
Zazpi kilotako legatza.	Zazpi kiloko legatza.

Euskararen aurkako erasoak

José Cadena y Eleta Pitillasen jaio zen, Nafarroan. Ikasketak Iruñeko apaiztegian egin zituen, eta zuzenbidea ere ikasi zuen Zaragozako Unibertsitatean. Biurrungo eta Agoizko apaiza izan ondoren, Espainian ibili zen. Eusko Jaurlaritzaren webgunean haren eliz bitzta erreparatzen duen artikuluan aipatzen ez den arren, 1910eko otsailaren 3an, Gasteizko gotzaina zela, agiri bat plazaratu zuen haurren bataioetan euskal izenak debekatuz.

Hura hil eta mende erdira, Gasteizko Luis Ibarra alkate frankistaren garaian, bere izena jarri zioten katedralaren ondoko kaleari. Cadena y Eleta Gasteizko apezpiku izan zen 1905 eta 1913 bitartean.

Euskal historiografian José Cadena y Eleta bereziki egin zen ezagun EAJrekin izan zituen enfrontamenduengatik, besteren artean, bataioetan euskarazko izenak debekatzen saiatzeagatik. Zentzu honetan, pentsa daiteke 1960ko hamarkadan pertsona honi kale bat emanez udalak Eliza espainiarzalea babestu nahi izan zuela, euskal abertzale katolikoen aurrean, erregimenarentzat euskal elizaren abertzaletasuna arazo iturri bihurtzen ari zen unean.

Mahai gainean jarri behar da, Pitillasen jaiotako apaiz euskarafoboa 1918an hil zela eta handik hilabete batzuetara Vatikanoko baliorik gabe utzi zuela haurrak euskal izenez bataia- tzea debekatzen zuen agindua.

Kuriositateak

Unesco Etxeak eta Ikuspegik egindako ikerketa baten arabera, Euskal Herrian 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla jakinarazi du.

Eta horietan guztietan, Arabiera da hitzun gehien dituen atzerriko hizkuntza. Arabiarrek 713. urte inguruan iritsi ziren Euskal Herrira lehendabizikoz. Eta gainera, gure hizkuntzan eragin dezente izan duen hizkuntza da. Euskarak arabieratik eratorritako hitz pila bat ditu; 'al' silabarekin hasten direnak horietako asko: albistegi, alkate, alibaitari, alkandora...

Hiztun gutxien dituen berriz, Okzitania da. Frantziako estatuan eta munduan bi milioi pertsona inguruk hitz egiten dute.

Okzitanierak hainbat dialekto ditu eta Lapurdin hitz egiten dena itzazaldeko gaskoia da. Garai batean, Gipuzkoako kostan ere hitz egiten ziren hizkuntza hau eta Donostiako izen asko horren ondorio dira: Urgull, Gros, Polloe, Morlans, Monpas, Aiete, Ullia, Miramon...

Euskararekin lotu izan duten beste hizkuntza bat Amazigera da. Guk bereberen hizkuntza bezala ezagutzen dugu, nahiz eta "Bereber" hitza Amazigera gutxiesteko erabili izan den. Afrika iparralde osoan hitz egiten da, eta bizirik iraun du arabieraren eta hizkuntza kolonialisten menpean.

Amazigerak eta euskarak hitz asko dituzte oso antzekoak: nekk-nik, akir-aker, aste-asto, aña-anai... Hala ere, duela urte dezente baztertu zuten bi hizkuntzen arteko ahaidetasun posiblea: Trask linguista estatubatuarrek frogatu zuen bezala, kasualitate hutsa izan liteke.

agenda

EKAINA

- 3: "Nola dago goi mailako hezkuntza" Hitzaldia Jon Diaz 18:00
5: Baso biziaren jardunaldiak 10:00
6: Lurralde eta Ongizate batzordeak 17:00 eta 19:00
San Juan sua dantza entsegua: 19:30
8: Jai batzordea 19:00
San Juan sua dantza entsegua: 19:30
10: Bertso saioa 18:30
13: San Juan sua dantza entsegua: 19:30
15: Harrera eguna 17:00
San Juan sua dantza entsegua: 19:30
17: "Udan pantailak edo hondartza" hitzaldia 17:30
"Ongi etorri" mural margoketa 19:00
20: Musika eskolako emanaldia
San Juan sua dantza entsegua: 19:30
21: Eskolako jaiak
23: San Juan sua
24/25: Garagardo azoka
24: STARBLUES musika kontzertua
27: Udaleku hasiera
Kz Guneko tutorearen bisita 18:15

UZTAILA

- 2: MALERREKA, gure esku dago-ko ekintza
9: "Basoko bainuak" 10:00
15: "Motxila laranja" IHES GELA kalean ekimena 17:00
22: Udaleku amaiera

IRAILA

- 23/25: Herriko jaiak
30: Pintxo potea

2021eko ERRENTA AITORTZEKO KANPAINA
Internet bidez, telefonoz, banketxean edo aholkularitzan.
Aurten ere
ERRENTA AITORPENA
euskaraz!



NIKOLAS ITURRIOZ, MUSIKARI NEKAEZINA

Txistua edo, gure aurrekoek zioten moduan, ttun-ttuna joaz, bertako eta inguruetako kale eta plazak makina bat aldiz dantzan jarritakoa. Elizako organujole, herri honetako historian izan dugun musikari osatuen. Gaztelan bezain egoki latinez kantatzen omen zuten, *sit tibi terra levis* esanda agurtuko dugu.

Bere bizitzako pasadizoekin apaindutako herriko musikarien historiaz gozatu nahi duenak aldizkari honen 25. zenbakian, Nicolasek 80 urte bete zituen, Maiterekin batera egindako elkarrizketa berri irakurtzeko aukera eskaintzen diogu. Esteka honetan aurkitu daiteke aipatu elkarrizketa:

<https://itsasondo.eus/node/684>
Lurrak gozo har zaitzala, Nikolas.

telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkarteak	943 881339
Itsaskoop janari denda	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran
Anne Garcia
Arbelaitz elkarteak
Danel Etxeberria
Emma Martinez
Eneritz Albizu
Gaztelekua
Iñaki Aizpuru
Iturririkiki guraso elkarteak
Jon Eskisabel
Jone Etxeberria
Jone Iturrioz
Maite Lasa
Nagore Etxeberria
Nerea Manzisidor
Ongizate lantaldea
Unai Aldasoro
Urkipe eskola

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreo edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA IRAILA IZANGO
DUZUTELA ETXEAN